

“DEBERRAK” EGINDA JOAN DA

1

Aita Pio hil dala barria
zabalduta da bala-bala,
holango baten heriotza da
benetan barri tamala.
Oraintxe dira larogei urte
Bolibarren jaio zala,
buruz argi ta bihotzez gartsu
gitxi da guk esan ahala;
bere ekintzaz bete leiteke
liburu mardul zabala.

2

Pasiotarren artean sartu
mutiko bixkor alaia,
urte gitxitan haziz eta heziz
sekulako prailegaia!
Erroman bertan meza emon ta
ikasketaren amaia,
honuntz etorri eta beretzat
irakaslearen mahaia;
baina ezin da kabidu ondo
lorategian tantaia.

3

Uste baino lehen gainean ditu
hainbeste kargu ardura,
ekin ta jarrai, igona dago
bilatu bako gradura.
Hemen eta han Ameriketan
zenbat neke ta estura!
Danak itzita, gogoz joan da
misinoko ezkutura;
Erromako ha orain heldu da
tokatzen jakon lekura.

4

Titulu eta kargu guztiei
behin betirako adio,
eta beretzat egin aukera:
ibai, baso ta indio...
misinogintzan agertu jaku
nor izan dan Aita Pio,
indioekaz ikasi dau bai
hemen zek dauan balio:
azkenengoak dira lehenengo
hori da Ebanjelio.

5

Azkenaldian izan dau Piok
burrukarik gogorrena:
pobreen lurraz jabetu nahirik
jauntxoak lapurrarena...
Paperik ezta, galdu beharra
jatorriz dana euren.
Su ta gar baten, lortu dau behintzat
dana ez bada, laurena;
eta pobreen alde burrukan
etorri jako azkena.

6

Lehen zan Iñaki ta gero Pio
jaiotetxea Armola,
Simon Bolibar jaunak lez borbor
gogoa eta odola.
Frutu ederrak emona dogu
Bolibar gure arbola...
Han eta hemen egindakoak
guk ezin ahaztu inola,
ondo merezi dauan koroia
Jaunak ezarri deiola!

A. Martzel

